

**ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK ETA OROTARAKOAK.
2020KO IRAILA**

2020ko udan, apartamentu turistikoak izan dira Euskal AEn osasun-krisiaren inpaktuari ondoen eutsi dioten establezimendu turistikoak

Arabako Errioxak, Bizkaiko Kostaldeak, Donostiak eta Gipuzkoako Kostaldeak izan dute balantzerik onena, bai sarreretan bai hoteletako ostatu-gauetan

2020KO UDAKO BALANTZEA: UZTAILA, ABUZTUA ETA IRAILA

2020ko **uztailean, abuztuan eta irailean**, apartamentu turistikoen sarrerek eta ostatu-gauak % 29,7 eta % 27,1 egin dute atzera, hurrenez hurren, aurreko urteko aldi beraren aldean, Eustatek eman dituen datuen arabera. Atzerakada horiek gainerako establezimendu turistikoen kasuan erregistratutakoak baino moderatuagoak dira.

Atzerrian bizi diren pertsonen sarrerak eragin ditu beherakada horiek. 2019ko udaren aldean, sarreretan % 66,4ko beherakadak egon dira eta ostatu-gauetan, % 59,5koa.

2020ko udako plazen okupazio-maila % 30,3koa izan da, 2019ko udan baino ehuneko 13,7 puntu txikiagoa. Apartamentuen arabera okupazio-maila dela eta, % 55,8ra iritsi da, aurreko urtearen aldean ehuneko 18,8 puntu gutxiago.

Sarrerek, gaudiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan, jatorriaren eta lurralde historikoaren arabera. Uda 2020

	Sarrerek		Gaudiak		Batez-besteko egonaldia		Plazakako okupazio-maila		Apartamentukako okupazio-maila	
	p	p/p-1	p	p/p-1	p	p-1	p	p.p.*	p	p.p.*
EUSKAL AE	21.697	-29,7	82.536	-27,1	3,80	3,67	30,3	-13,7	55,8	-18,8
Estatukoak	17.673	-6,3	66.492	-9,8	3,76	3,91				
Atzeritarrak	4.024	-66,4	16.045	-59,5	3,99	3,31				
ARABA/ÁLAVA	2.998	-20,0	19.850	-22,3	6,62	6,82	23,9	-5,3	54,3	-15,7
Estatukoak	2.698	-8,1	17.128	-13,4	6,35	6,74				
Atzeritarrak	299	-63,0	2.722	-52,8	9,09	7,12				
BIZKAIA	10.633	-31,4	31.917	-27,7	3,00	2,85	29,1	-20,9	50,2	-24,4
Estatukoak	8.825	-8,3	26.537	-5,6	3,01	2,92				
Atzeritarrak	1.808	-69,3	5.379	-66,4	2,98	2,72				
GIPUZKOA	8.066	-30,4	30.769	-29,4	3,81	3,76	38,9	-14,8	64,3	-15,2
Estatukoak	6.150	-2,5	22.826	-11,5	3,71	4,09	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.917	-64,0	7.943	-55,4	4,14	3,37	-	-	-	-

p= uda: uztailearen 1etik irailaren 30era arte

p/p-1 Tasa de variación interanual en el último periodo observado (p) respecto al mismo periodo del año anterior (p-1)

p.p.*= aurreko urteko periodo berarekiko portzentajeazko puntuko alde

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Lurralde historikoen arabera, Arabak izan ditu zifrarik onenak 2020ko udan; halere, sarrerek aurreko udako sarrera kopurua baino % 20 baxuagoak izan dira, eta ostatu-gauak, % 22,3 baxuagoak. Bizkaian, sarrerek % 31,4 egin dute behera, eta ostatu-gauak, % 27,7. Azkenik, Gipuzkoan sarrera-kopuruan eta ostatu-gauen kopuruan, 2019ko udako hilen aldean, % 30,4ko eta % 29,4ko beherakadak egon dira, hurrenez hurren.

2020ko udako ostatu-gauak % 48,5 egin dute behera Euskal AEko hotelen, landetxeen eta apartamentu turistikoen multzoan, 2019ko udaren aldean

Euskal AEko hotelen, landetxeen eta apartamentu turistikoen multzoan, 2020ko **uztaileko, abuztuko eta iraileko balantzeak** agerian uzten du COVID-19aren krisiak inpaktu handia izan duela sektorean. Bai sarrerek eta bai ostatu-gauak eragin nabarmena jasan dute, eta honako balio hauetan geratu dira: 588.441 sarrera eta 1.244.676 ostatu-gau. Alegia, % 46,4ko beherakada egon da sarreretan, eta % 48,5ekoa, ostatu-gauen kasuan.

Sarrerak, gaudiak eta plazaka betetze-maila Euskal AEko hartzaile establezimendu turistikoetan. Uda 2020

	Sarrerak					Gaudiak					Plazakako okupazio-maila	
	p	%	p-1	%	p/p-1	p	%	p-1	%	p/p-1	p	p.p*
EUSKAL AE	588.441	100,0	1.097.215	100,0	-46,4	1.244.676	100,0	2.414.793	100,0	-48,5	39,1	-28,8
Estatukoak	419.788	71,3	570.670	52,0	-26,4	929.304	74,7	1.321.216	54,7	-29,7	-	-
Atzeritarrak	168.653	28,7	526.545	48,0	-68,0	315.373	25,3	1.093.577	45,3	-71,2	-	-
ARABA/ÁLAVA	78.488	13,3	146.710	13,4	-46,5	165.972	13,3	311.152	12,9	-46,7	33,0	-20,5
Estatukoak	62.908	80,2	94.193	64,2	-33,2	138.856	83,7	216.535	69,6	-35,9	-	-
Atzeritarrak	15.579	19,8	52.516	35,8	-70,3	27.116	16,3	94.617	30,4	-71,3	-	-
BIZKAIA	219.308	37,3	515.037	46,9	-57,4	466.740	37,5	1.071.293	44,4	-56,4	34,1	-34,2
Estatukoak	168.126	76,7	268.507	52,1	-37,4	369.060	79,1	582.589	54,4	-36,7	-	-
Atzeritarrak	51.182	23,3	246.530	47,9	-79,2	97.679	20,9	488.704	45,6	-80,0	-	-
GIPUZKOA	290.645	49,4	435.468	39,7	-33,3	611.964	49,2	1.032.347	42,8	-40,7	46,5	-26,8
Estatukoak	188.754	64,9	207.969	47,8	-9,2	421.387	68,9	522.092	50,6	-19,3	-	-
Atzeritarrak	101.892	35,1	227.499	52,2	-55,2	190.577	31,1	510.255	49,4	-62,7	-	-

p= uda: uztailaren 1etik irailaren 30era arte

p/p-1 tasa de variación interanual en el último periodo observado (p) respecto al mismo periodo del año anterior (p-1)

p.p.*= aurreko urteko periodo berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Jarduera turistikoaren bilakaera desberdina izan da lurralde historikoetan. Bizkaiak jasan du osasun-krisiari aurre egiteko hartu diren neurrien eragin handiena; 2019ko udarekin alderatuta, % 57,4 jaitsi da sarrera-kopurua, eta % 56,4, ostatu-gauen kopurua. Ondoren, Arabak jasan du eragin gehien; bertan, sarrerek % 46,5 egin dute behera eta ostatu-gauak, % 46,7. Azkenik, Gipuzkoan, beherakadak oso handiak izan dira, baina ez hain nabarmenak: sarrerek % 33,3 egin dute behera eta ostatu-gauak, % 40,7.

2020ko udako hiletako bisiten jatorria dela eta, bereziki nabarmena izan da turista atzeritarren galera, % 68 egin baitute behera sarrerek eta % 71,2, ostatu-gauak. Estatuko turisten kasuan, % 26,4koa eta % 29,7koa izan da, hurrenez hurren.

Ondorioz, plazako okupazio-mailak Euskal AE osoan ehuneko 28,8 puntu egin du behera, eta, 2020ko udan, % 39,1ekoa izan da. Lurraldeen arabera, Araban aurtengo udan % 33,0koa izan da (aurreko udan ikusitakoa baino ehuneko 20,5 puntu gutxiago), Bizkaian, % 34,1ekoa (ehuneko 34,2 puntu egin du behera urte artean) eta, azkenik, Gipuzkoan, plazako okupazio-maila % 46,5ekoa izan da, alegia, 2019ko udan erregistratutakoa baino ehuneko 26,8 puntu baxuagoa.

Arabako Errioxa eta Gipuzkoako Kostaldea izan dira hoteletako ostatu-gauen beherakada arinena izan duten gunek

Gune geografikoen arabera analisiak aukera ematen du krisiaren intzidentzian sakontzeko, behintzat hotel-ostatuei dagokienez. Bizkaian –argi dago kalte handiena jasan duen lurraldea izan dela–, Bizkaiko Kostaldea izan da lurraldearen gainerakoarekin erkatuta bilakaera onena izan duen gunea, bai sarreretan (–% 41,1) bai ostatu-gauetan (–% 41,7).

Arabak tarteko egoera bizi izan du, baina nabarmentzekoa da Arabako Errioxa, ondoen eutsi dion gunea izan baita; % 40tik beherako jaitsierak izan ditu, bai sarreretan (–% 37,7) bai ostatu-gauetan (–% 38,5).

Gipuzkoan –lurralde horrek izan ditu zifra onenak–, *Gipuzkoako Kostaldea* nabarmendu behar da; % 30etik beherako jaitsierak izan ditu sarreretan (–% 29,7) eta ostatu-gauetan (% 35,2), baina, bai *Donostiak* bai haren *metropolialdeak* Euskal AEko batez bestekoarekin alderatuta izan dituzten beherakadak ahulagoak izan dira, eta 10 puntu baino gehiagoko aldea egon da EAErekin. Sarreretan –% 29,6 eta –% 36,8 egin dute behera, hurrenez hurren, eta ostatu-gauetan, –% 40,3 eta –% 40,7, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak eta gauldiak eremu geografikoaren arabera. Uda 2020

	Sarrerak		Gauldiak	
	p	p/p-1	p	p/p-1
EUSKAL AE	526.814	-47,4	1.034.437	-50,8
ARABA/ÁLAVA	69.140	-47,6	127.621	-50,1
Vitoria-Gasteiz	43.207	-51,9	83.414	-54,1
Errioxa Arabarra	12.850	-37,7	21.668	-38,5
Arabako gainerako eskualdeak	13.083	-39,1	22.539	-42,2
BIZKAIA	197.540	-58,7	397.875	-58,7
Bilbao	121.845	-59,3	230.784	-61,2
Metropolialdea (1)	28.061	-66,4	61.331	-61,8
Bizkaiko kostaldea	32.255	-41,4	67.929	-41,7
Bizkaiko barrualdea	15.379	-61,4	37.831	-59,0
GIPUZKOA	260.134	-33,6	508.941	-42,2
Donostia / San Sebastián	155.319	-29,6	308.331	-40,3
Metropolialdea (1)	24.353	-36,8	49.567	-40,7
Gipuzkoako kostaldea (1)	64.984	-29,7	115.423	-35,2
Gipuzkoako barrualdea	15.478	-61,6	35.620	-65,4

p= uda: uztailaren 1etik irailaren 30era arte

p/p-1 tasa de variación interanual en el último periodo observado (p) respecto al mismo periodo del año anterior (p-1)

(1) Ez du hiriburua barne hartzen

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020KO IRAILEKO EMAITZAK

Apartamentu turistikoak direla, **2020ko irailean**, sarrerek eta ostatu-gauak honako balioak izan dituzte: 4.452 eta 19.708, hurrenez hurren. Zifra horiek beherakada erakusten dute, 2019ko irailaren aldean, % 45,4koa sarreraren kasuan eta % 32,8koa, ostatu-gauen kasuan. Intentsitate berezikoa izan da atzeritarren kasuan izan den beherakada; 2020ko irailean, atzeritarren sarreretan % 81,4ko beherakada erregistratu da, aurreko irailarekin alderatuta, eta, ostatu-gauetan, % 68,7ko beherakada.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldiak gora egin du, eta 4,43 egunekoa da 2020ko irailean; 2019ko irailean 3,59 egunekoa izan zen.

Sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2020ko Iraila

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2020/09	m/m-12 (%)	2020/09	m/m-12 (%)	2020/09	2019/09
EUSKAL AE	4.452	-45,4	19.708	-32,8	4,43	3,59
Estatukoak	3.907	-25,4	16.525	-13,7	4,23	3,66
Atzeritarrak	544	-81,4	3.183	-68,7	5,85	3,48
ARABA/ÁLAVA	609	-32,2	5.936	-17,4	9,74	7,99
Estatukoak	576	-27,7	5.207	-7,0	9,04	7,03
Atzeritarrak	33	-67,5	730	-54,1	21,85	15,46
BIZKAIA	2.191	-50,0	7.040	-37,2	3,21	2,56
Estatukoak	1.984	-27,8	5.929	-14,6	2,99	2,53
Atzeritarrak	208	-87,3	1.111	-74,0	5,35	2,62
GIPUZKOA	1.651	-42,7	6.731	-38,3	4,08	3,79
Estatukoak	1.348	-20,3	5.389	-18,3	4,00	3,90
Atzeritarrak	303	-74,5	1.342	-68,9	4,42	3,63

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Azkenik, Bizkaian izan dute beherakada handiena sarrerak 2020ko irailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Beherakada % 50,0koa izan da, eta 7.040 ostatu-gau izan dira (aurreko urtean baino % 37,2 gutxiago). Ondoren, Gipuzkoan, sarreretan % 42,7ko beherakada egon baita eta, ostatu-gauetan, % 38,3koa. Araban, sarrerak % 32,2 egin dute behera, 2019ko irailarekin alderatuta, eta ostatu-gauek, % 17,4.

Iraila da 2020ko udan portaera txarrena izan duen hila Euskal AEko turismo-ostatueta, bai sarreretan bai ostatu-gauetan

2020ko irailean, Euskal AEko establezimendu turistikoetan erregistratu diren sarrerak eta ostatu-gauek % 58,8 egin dute behera; 141.977 sarrera eta 289.414 ostatu-gau egon dira. Uztailean, sarrerak % 44 egin zuten behera, eta, abuztuan, % 37,6, 2019ko hilekin alderatuta, eta ostatu-gauek, % 48,3 eta % 40,7, hurrenez hurren.

Lurralde-maila dela eta, nabarmena da urte arteko beherakada (2020ko iraila 2019ko irailaren aldean) Bizkaian; % 66,6koa sarreretan eta % 64,5eko beherakada ostatu-gauetan. Atzerakadaren intentsitatea aintzat hartuta, hurrengo lurraldea Araba da; bertan, sarrerak % 55,8 egin dute behera eta ostatu-gauek, % 52,4. Azkenik, Gipuzkoan, beherakadak % 50,5ekoak izan dira sarreraren kasuan eta % 54,8koak, ostatu-gauetan.

Sarrerak eta gualdiak Euskal AEko hotel, landetxe eta apartamentu turistikoetan. 2020ko Iraila

	Sarrerak		Gualdiak	
	2020/09	m/m-12 (%)	2020/09	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	141.977	-58,8	289.414	-58,8
Araba/Álava	19.730	-55,8	42.671	-52,5
Bizkaia	53.999	-66,6	111.309	-64,5
Gipuzkoa	68.247	-50,5	135.433	-54,8

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Irailean oraindik itxita daude turismo-ostatuen % 15,1

Covid-19aren osasun-krisialdian, 2020ko martxotik aurrera, **itxitako turismo-ostatuen kopuruaren bilakaerak** erakusten du sektorearen gaineko hasierako inpaktua arindu egin dela, baina, halere, udako hiletan itxita egon diren establezimenduen ehunekoak oraindik bikoiztu egiten du, nabarmen, aurreko urtean erregistratutakoa. Hala, 2020ko apirilean erabat itxita egon ziren establezimenduen % 90,5 eta, uztailan, % 17,7, abuztuan, % 14,7 eta, irailan, % 15,1.

Itxita mantendu diren ostatu turistikoak (%). COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Iraila	15,1	6,2	17,7	7,6	16,0	6,2	13,5	5,6
Abuztua	14,7	6,3	17,2	7,1	14,9	5,7	13,6	6,4
Uztaila	17,7	6,4	20,7	7,1	18,3	5,7	16,1	6,7
Ekaina	36,4	7,9	36,0	7,6	35,7	7,5	37,0	8,2
Maiatza	65,0	8,7	69,0	8,6	62,5	7,8	65,2	9,4
Apirila	90,5	8,0	92,6	9,1	87,8	6,5	91,6	8,6
Martxoa	17,8	13,0	15,8	11,7	18,2	11,5	18,2	14,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Oharra: Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egungo egoerak ezohikoak izan badira ere elkarlanean jarduteko egindako ahaleginagatik. Haiei esker, informazio hau zabaldu da, eta, haren bidez, COVID19aro aurre egiteko hartutako neurriek sektorearen gainean izan dituzten ondorioak kuantifikatu dira.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62